


ANTZONEKOA

ARTAZA TA IRAOLAGA'TAR JUAN BAUTISTA



Baserria gure izkuntzaren abaro ta babes-leku

EGILEA: OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

MARRIZKIGILEA: JOSE ARRUE

ARGITARATZAILEA:

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BILBOKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAZ

ANTZONEKOA

ARTAZA TA IRAOLAGA'TAR JUAN BAUTISTA



EGILEA: OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO
MARRIZKIGILEA: JOSE ARRUE

ARGITARATZAILEA
ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BILBOKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAZ

AURKIBIDEA

IDATZ AURREA	7
ANTZONEKOA	9
IRAKURGAIAK	41
EUSKERA GURE IZKUNTZA	45
SENDIA	47
EUSKERA IKASKIZUNA	49
AUTODETERMINAZIOA	51



Ate orretatik ezin zan igaro ta... au beste au egin bear izan zan.

IDATZ AURREA

Beste liburu txiki bateaz, euskerazko liburutxu bateaz, barriro emen nator-tsue. Jakingabetasuna ausarta da benetan, ori alde batetik izanik, baiña batez be gure izkuntza maitea, euskera, zabaltzen, edatzen lagundu naian, emen nozu irakurle. Nire euskera idazte-zaletasuna gure errian, Euskalerrian gure izkuntza indartzea gureriaren eragiña izanik, erri, uri, baseterri ta kalean, toki guztietan euskera entzun daitela, gura dot. Erri, aberri, polit, zoragarri onetan nire guraria lortzeko zer obarik euskotar bakoitzak eta batez be euskaldun bakoitzak, zeezer, zerbait, bere alde, euskararen alde egitea baiño?

Irakurtea bear-bearrezkoa da izkuntza bat ikasi, obetu ta aurrera eroateko, ta beraz liburuak garrantzitsuak dira. Norbaitek liburuak idazten ez ba dauz, edo gitxi idazten ba da, zelan irakurri? Guk, euskaldunok, euskerea jaiotzetik dogunok eta baita be euskaldun-barriak, egunkari ta aldizkariak euskerazko idatziaz bete bear geunkez, eta liburutegiak euskerazko liburuakaz.

Euskaldun barri askoren eskuetara liburutxu au elduko balitz, pozik izango nintzake, ta ondiño pozago, askoz be pozago, azkenengo orrirraño irakurriko balebe.

Nire asabatariko baten gertaera batzuk azaltzea da nire gaurko asmu au. Naizta gaur egun gertaera oneek garrantzi aundirik ez izan, euskeraz liburu bat geiago idatzi al izateko gauza izango da, ta onek, liburu bat geiago euskeraz idatzita izatea, orrek bai dau garrantzirik naiko.

Antzonekoa da liburu onen izena. Antzone basetxe bat da, nire jaiotze basetxea. Beratan Artaza ta Iraolaga'tar Juan Bautista, Antzonekoa ezizenez eritxona, jaiio, bizi ta il zan. Antzonekoa nire birraitita nire aitaren aldetik izan zan. Zio onegaitik be, liburutxu au euskeraz argitzeratzeko bearturik nintzan.

Or dozu, irakurle, basetxe au, Antzone, itxasaldean, Urduliz erritxuan. Mila ta bederatzireun ta berrogeta bederatzian barriztua izan zan, eta gaur egun beratan Antzonekoaren birlobak bizi dira.

Basetxe aurrean, baratz txiki baten Gernikako areitzaren kimu bat ikusi daikezu. Mila ta bederatzireun berrogeita emeretzian landaratu neban.

Ara or, baserria ta areitza. Baserria gure abenda zaarraren babes-leku ta abaro. Baserriak, gure erri nortasunak dauan ezaugarri bereziena, izkuntza, gure euskera maitea, zaindu, jagon, dau. Baserria izan ez balitz, baserritarrak izan ez balitzazan, gure izkuntzaren iletak antziña ospatuko ziran. Gaur egun

urtero bere omenaldira joango giñakez. Eusko-gizartea zorrean da bai, baserriaz, ba dogu zergaitik maite baserria.

Iñoiz, areitza eusko abenda zaarraren ikurra dala, irakurri dot. “Geldiro geldi-
diro areitza azitzen da, baiña burdiñaren sendotasun eta mende luzarotako
iraunpena lortzen dau, areitza gure abenda zaarraren ikurra da”. Nik gaztelarrez
irakurria dot, olan iñoan, “Lentamente se desarrolla el roble, pero alcanza una
resistencia férrea y una duración de muchos siglos, roble es el símbolo de nues-
tra raza”.

Zio naikorik dala, uste dot, liburutxu bat idazten saiatzeko. Ni ez naz idazle
trebe, baiña alik ulekor idazten aleginduko naz, ba zuei, euskeraz ikasten zabil-
tzen guztioi eskeintzen dautsuet, baserria ta gure izkuntza obeto ezaguturik,
zuen abertzaletasuna sutu daiten.

Otazua'tar Benito

ANTZONEKOA

Artaza ta Iraolaga'tar Juan Bautista, ANTZONEKOA, mila ta sortzireunde amabi orrillaren ogeta bian, Urdulizen, Antzone deritxon basetxean, jaio zan. Bere aita-amak Artaza'tar Domingo ta Iraolaga'tar Prantziska, aita Urdulizkoa, Antzone baserrian jaioa, eta ama Katikekoa. Bere aitaren aldetik, aitita ta birraitita be Antzone basetxean jaiokoak ziran.

Euskotar baserritar indartsu au, mila ta sortzireunde berrogeta zortziko irailaren leenengo egunean Iturria'tar Manuelagaz, Katikeko alabea, ezkondurik lau seme-alaba izan ebezan, bi gizonezkoak eta bi andrazkoak. Semeak Juan Bautista ta Erramon, itxasgizonak, sendo ta naiko indartsuak ei ziran. Alabak Maria Katalina ta Amelia, azkenengo au nire amama.

Liburutxu onen aintzindari bakarra Artaza'tar Juan Bautista izanik, bere basetxe Antzonen buruz be zerbait idaztea egokia deritxat.

Antzonekoaren seme biak, Juan Bautista eta Erramon, itxasgizonak izan ziran eta Plentzi uri politean ezkondurik, bizi ta il ziran. Maria Katalina, alabea Barriken bere bizia emon eban, azkenengo Amalia beste alabea, basetxean, Antzonen geratu zan. Otazua'tar Juan Bautista, Laukizko semea, ezkondurik iru seme-alaba izan ebezan, Juan Bautista Elisa ta Benito, nire aita.

Antzonekoan seme zaarrena Juan Bautista, itxasgizona izan zan, Algorta erri txukunean bizi ta il zan. Elisa, alabea itxasgizon Mentxaka'tar Antoniogaz ezkondata Almeriako lurraldetan egoitza jarri eban.

Baserrian, Antzonen, nire aita Otazua'tar Benito geratu zan, Asua'tar Kasi-miragaz ezkondata zazpi seme-alaba izan ebezan. Gaur egun 2.000 urtean baserrian Otazua Asua sendiko anai bi bizi dira.

Azalpen edo zeaztasun oneik ez dabe leba, ardura aundirik, baiña sendi onen euskaldun jarrera adierazotea egoki diratxat.

Orain liburutxu onetan agertuko dodana kondaira da, gertaerak dira ez dira ipuiñak, jazorikoak dira. Mila bederatzireun da zortzigarren urtean gaztelarrez idatzita argitaratu izan zan, "El Forzudo Vizcaino" eritxon. Ogei bat urte geroago, Arria'tar Josebak, Arrue jaunaren argazkiakaz, gaztelarrez beste liburu bat ANTZONEKOA izenez ebala, argitaratu eban.

Nik, Antzonekoaren idar-gertaerak neure erara ta neure aitagandik entzundako lez, edestuko dodaz. Gertaera oneik gugana abots-abots, gizartetik-gizartete geien-bat eldu jakuz.

Antzone baserriak sarreran atari zabal, aundi bat dau, eta bean eskuma-ezkerretara bizileku bana, len-oiñan beste bizileku bat eta kanbarea, goiago beste kanbara txiki bat. Au da aurreko aldean, aldean aztielak banatzen dauzala, kortea bean eta goian laztategia. Aldi aretan Antzonekoan bizian baserrian, Antzonekoa bere sendiaz bizi zan, bestaldekorik ez eukan. Gaur egun otsaila 2.000 urtean basetxe onetan bere iru birloba bizi dira, iru bizilekutan bizi dira.

Antzonekoa ta bere sendia baserrian eskumako aldean egiten eben euren bizi-tza, eguzki-aldera egozan eta dagozan sute, sukalde, eta beste gelatan. Bizileku onetara sartu al izateko egoan ate berezia, Antzonekoa gizon sendoa, goi izanik, ez zan eragozpen barik naikoa barneratzeko, eta beste aundiago bat zabalago bat, gure gizona makurtu barik sartu al izan eiten, egin eben. Ate onek, ate barri onek, logela batera jotzen eban, eta ondo gogoratzen naz zelan nire aitak basetxean egin eban barrizte baten ertsi, ixi, eban. Aldi aretan nik zazpi bat urte izango nebazan.


Antzonekoa gizon sendoa, luzeà, goia, beso-esku zaintsuduna. Bere izugarritzko indarra, geien bat, soin-indarra zan.

Liburutxu au, Antzonekoaren indar-gertaerakaz uts-utsean laburtxua, gauza gitxi izango litzake, eta ikusirik irakurle irakurte jarraitzeko gertu, gogotsu zarala, beste irakurgai batzuk, naizta eurak garrantzitsuak ez izan, erabiliko dodaz.

Antziña nire errian, Urdulizen eta albo-errietan be bai, ainbat errota egozan, eta oraintsu arte iraun dabe. Jakiña da, aldi aretan artoa ta indabea nekazarien janari bereziena izaten zan. Sendi artean gaurko oparotasuna ez zan nabaritzen. Urte osoan sendia jasez elikatu al izateko beste arto ta indabea lortzen eban nekazaria, aberats bezela begiratua izaten zan. Orretarako palda edatsuen etxeguna izan bear zan. Bai artoa jaki baliotsua, urrunduta etxeko biztanleentzat ezeze abereentzat be janari onenatarikoa da. Baserritarrok zenbat talo geure bizitzan jan eta dogu? Ziturki ortik jatorku uritarrak guri "Borono" deitzea.

Ludia biraka ei dabil eta ez dakit orregaitik ba da, ala beste zio anbategaitik, aldiak aldatu egin dira, eta ara non, gaur egun taloa!, eta zelako taloa!, aldi aretan gure amak olako taloa emon ba euskun, ez genduan jango, urritarren artean be taloa gozoro jaten da. Lukinka edo odol-este apur bategaz, naizta urdailarentzat jaki oneik auzokide kaltegarriak izan, jai-aldietan notintsa aundia poz, alaitasunez jaten saiatzen dira. Indabeaz be bardin jazoten da. Aldakuntz au oso atsegintsu ikusten dot, olan leen baztertuak izan diran jaki oneik, baserritarrok, nekazariak, sal-neurri obeagoan saldu al izango dabez eta beraz euren bizi-bidea obetu.

Antzonekoan erritar batek, errotaria bera, bere errotan, Legarrotta izan zala, uste dot, upel aundi bat aldatu bear izan eban. Upela gizon batek bakarrik mugit-



Upel astuna indarkada larregi barik ezarri eban leku egokian.

tzeko aundiegia, astunegia izanik, errotariak bere auzokidei laguntza eskatu eutsen.

Baserritar, nekazarien artean alkar-laguntza betirik, eguneroko jokaera izan da. Nekazari gizartea alkartasun zalea beti izan da, edozein beste gizarte baten bezela barregarri anbat izaten da, baiña edozelan be arazo bakana izanik. Erriko bideak be auzo-lanean zaintzen, jagoten, ebezan. Nire auzunean soloko lan gogorrenak alkar-laguntzaz egiten ziran. Oitura onek oraintsu artu nire auzokideen artean iraun dau.

Auzo-lana, niretzat oso ongarria deritxat, berari dagokion laguntasunagaitik ez eze lagun-urkoa lagunduz, alkar maitatzeko zaletasuna sortzen daualako, eta batez be gazteen artean sortu bear daualako.

Une onetara eldurik, ezin dot jarraitu nire aitagandik entzundako esaldi asmakisun garrantzitsu bat, ementxe jarri barik. Olan diño, "Jaungoikoak gizonari egin leikion mezederik aundiena, bere lagun-urkoari on egin, mezede egin eta berari, lagun-urkoari, lagundu al izateko aukerea, erea, emotea da". Benetan esaldi sakon egunero ausnartu bearrezkoa.

Baiña goazen errotara, bertan zer jazoten dan ikusi dagigun. Errotiren deardarra on-arturik, berari laguntzeko asmuz iru mutil gazte eldu ziran, aurkeztu ziran. Mutil sendo adoretuak.

Gure lau gizonak indarka lanean saiatzen ziran. Upela errotariak nai eban tokian ezartzeko asmuz egin ebezan indarka etengabeak alperrikoak izan ziran. Eurentzat upela astunegia zan, errotariaren naia betetzea eziñakoa zala ikusirik, euren lana, indarkadak eten ebezan.

Onelako unetan premiñazko dan bezela, lau gizonak amaikatako txiki bat jaten geratu ziran. Euskotarrontzat jan-edatea betirik kirol berezia zan. Luzaro alkar-izketan jardun eben, baiña errotari ta bere lagunen gogoetatik upel arek ez eban alde egiten. Une aretan gizon arein arazoa upel astun a errotariak gura eban tokian ezartzea zan.

Alako baten, gaztetariko batek, errotariaren guraria lortzeko egokia izango zan asmakizun bat izan eban, Antzonekoari dei egitea, bere laguntza eskatzea bearrezkoa deritxola, adierazo eutsen.

Aldi aretan Antzonekoa mutil gaztea, kintopekoa zan, baiña bere indar-ospea erritarren artean edatzen joian.

Errotari ta bere lagunak Antzonekoagaz egon ziran, eta bere laguntza, zelan ez, lortu eben. Urrengo egunerako geratu ziran.

Biramonean esandako ordurako Antzonekoa errotan aurkezturik, alkar-agurtu ondoren errotariak bere guraria agertu eutsan, upela norañio jaso bear eban eta zein tokian jarri.

Antzonekoak errotara burdin-aga batzuk eroan ebazan, eta oneik izan ziran bere lanean erabili ebazan tresna guztiak. Errotariaren naia betetzea lan erreza

ez zan. Antzonekoa upela bere tokira jasoteko indarka luzaro ziardun, eta bere lagunen laguntza apur bateaz, upela bere tokian jarria izan zan.

Antzonekoak egin ebanagaz errotaria ta bere iru lagunak arrituta geratu ziran. Siñistu ezifiekoa, upel astun a burdin-aga laguntzaz uts-utsean mutil gazte batek, kintopeko batek, erreztasunik aundienagaz Antzonekoak egin eban bezela, jaso eban lekuan ezartzea. Gertaera onek be Antzonekoaren indar-ospea Urdulizen ez eze albo-errietan be edatzen joian.

Antzonekoak egin eutsan mezedegaitik, errotariak zelan eskertu ez ekian. Alkar-agurtu ondoren bere etxerantz abiatu zan, bertako lagunen “ondo ibilli” esaldiari, “eta gitxi gaztau erantzunez”.

Gitxi gaztao. Bai egia zan, aldi aretan baserrietan, nekazari artean, ez egoan dirurik irazi al izateko. Lurgintza, nekazaritza, lan gogor ta neketsua irabaste urrirako. Sendia elikatu, azi ta ezitzeko, baserritarrak lan gogor, astun, neketsua egin bear izaten eban eta egunero. Gure asabak zenbat otx neguan eta udan bero, sargori, izerdiz ezotuta jasan bear izaten eben ostaz ostaz bizi al izateko.

Euren lan-ordua goizeko izarrakaz eguna ilundu arte. Baserritarra ume-umetxutatik lanean ezitatzua izan da. Basetxean ume, gazte, adifiekoa zein zaarrentzat beti izaten da zerbait egiteko. Astegune izan zein jaieguna izan bardin izaten zan. Bearrezko Meza Deuna entzun ondoren, aberentzat janari ekarri, bedarrak ebagi, abereak jagon, baserrian baztertu ezifiekoa zeregiñak dira.

Gaur eguneko nekazaritza, ordukoaren ondoan jolaste bat da. Orain lurgintza lanak geienak tresna ta tramankuluak egiten dabe. Gaur egun basetxe alboetan, orduko gurdi zaararen orde, trator eta kotxe dotore, garestiak ikusten dira. Baserritarren onerako dirala ikusirik, danok poztu bear gara.

Guzti au ezpai barik olan da, baiña naizta olan izan basetxean, baserrietan, ez dau ifio geratu nai, alde egiten dogu, gazte ez ain gazteak bizi-bide oba bat aurkitu gurean urietara joaten dira. Basetxetatik aldenduaz, nik uste dot, uts nabarmen bat izan dogula.

Gaur-egun gure aberrian baserritarrak, uritarrak baiño bizi baketsu ta nasaiago bat daroe. Egia da, baserrian euren lanetarako euren orduak dabez, ez da lo egon bear, ori ez, zintzo ta langile izan bear da, baiña baserritarrak lantegi-adarren edo soifiuaren bildurrez beti zain ez dau egon bear. Alogeratuko langileak baiño azkeagoak dira. Azkatasun au ikertzatu lei? Zenbatean?

Gaur-egun lurretik irabaste, eskuratze, politik lortzen dabez. Lurra ondo zaindu, jagon, ezkerero emonkorra da. Euzkadin egutaroa leuna dogu, bero ez otx jasan ezifiekoa oso gitxi, batez be itxasaldean, euria ugari eta egun epelak geienak.

Nekazaritza gaur-egun antziña bezela ez da. Arto ta indabea antziña baserrietan artean jaki bereziena izaten zan, eta beraz euren uzta geienak. Oiturak aldatu dira, ta antziña arbiatuak ziran janari, talo ta indabea, gaur-egun uritarrak be gozoro jaten dabe.

Barazki, igali, esne ta okelea lortzeko, lortu al izateko, giro egokia doguna eratuz, eskuratze politikak lortu daitezke. Gure erririk geienetan edo albo-erri anbatan guztiz urbil lantegiak dagoz eta bertako lurgabeko langileak, nekazari-erriantzat bezero bereziak dira.

Zugaitza ez da aitzu bear. Zure eta peper-zugaitza epe apur bat luzean aberastasan ikaragarria. Mota guztietako zugaitzak landaratu bear dira, ez utsetsean bertokoak, areitz, pago, gaztain, urki, leizar eta abar, bai ta be lasterren datozenak, bakoitza toki, lurralde egokienetan landaratu.

Gaztain ta intxaur zugaitz oso aberatsak dira. Leenengo urteetan euren idaliak diru apur bat eskuratzen da, baiña epe luzean euren egurra, enbor eta adar lodiak sal-neurri gorengoetan saltzen dira. Bai egia da, orretarako luzaro itxaron bear izaten da, gure seme-alabaren gizaldian be, gaztain, intxaur, areitz eta pago zugaitzakaz, eurretatik ez dogu ezer lortuko, ez dogu dirurik eskuratuko, baiña gure errian gizaldi barriak izango dira, eta zergaitik ez itxi eurei ondoren aberats bat?

Epe laburrean azten diran zugaitzak be bearrezkoak doguz. Gizaldi batzutan izango dogun egur eta zure utsa betetzeko, paper edo egur-orea egiteko, pinu ta eukaliptua be bearrezkoak dirala deritxat. Bai gaur egun zugaitz onen aurka borroka aundiak doguz, batez be ekologizta deritxon talde batzuekandik. Borroka au, beste edozelako borroka bezela, zentzunez eta bakean izanik, ontzat artzen dot, baiña borroka saratatsu askotan zoritxarrez burugabekeri larregi agertzen da. Gizartea olako arazoetan arduratzea, oso garrantzitsua izaten da, batez be arazoak zentzunez bideraturik, eta bakean zuzentzen alegindu, saiatzen ba gara.

Naizta gure aberria Euzkadi, lurrez txikia izan, mota guztietako zugaitzak landaratzeko dauz, baiña onetzaz be eratu bear da zelan eta non landara mota bakoitza landaratu. Gure betiko zugaitzak, areitz, gaztain, pago, urki ta intxaur berezienak izanik.

Lur-saila, palda edatsuak nekazaritzan bizi-bide on bat lortzeko bear dira. Baiña etxagun palda edatsudun batek, arlo guztietara jota, barazki, igali, esne, okela, zugaitz eta abar, lantegietako ke ta kutxadura artean baiño ogi-bide osasuntsuago bat eta nasaiagoa izango leuke.

Nure asmakisunetan larregi luzatu naz. Idazki oneik liburutxu au antzeratu naian egokia deritxat... baiña goazen ba Antzonekoaren eginkisunakaz.

Antzoneko lurraldetan, etxagunak, Antzonekoak, arto ta indabea, baba-gorria ugari lortzen ei eban, eta egun baten, beste askotan bezela, bere idi-buzterriaz artagarao zorro batzuk gurdian eroazala errotarantz joian. Ain zuzen be, Antzegu azpiko estartea oso estua izanik, zuzen-bide ezbardifnean idi-buzterri bi ezin zeinkeezan igaro. Gurrpide onen aldamenean, maila ezbardifnean, apur bat gorago, arbide edo galtzada bat egoan. Gaur egun estarta ta arbide orde, erripide dotore bat dago.



Onelan atara eban jantoki gelatik.

Antzonekoa bere idi-buzterri ta gurdiaz estartan sarturik eta estarta asieratik naiko urrun joiala, zuzenbide ezbardinean etorren beste idi-buzterridun bateaz topo egin eban. Idi-buzterridunei euren bidean jarraitzea ezinekoa zan, baita be, bataik besteari bidea azke ezartzea, gurpide oso estua izanez, ganera sakona ta eskuma ezkerretara arribidea igon ezinezko lunbeta eukan, beraz buzterri bietatik batek gurpidearen asierara itzuli bearke eban, idi-dunak euren bidean banaban joan eitezan gurpidea eragozpen gabe besteari opatuz.

Antzonekoa bere idi-buzterri ta gurdiaz beste idi-buzterriduna baiño estartaren asieratik urrunago egoan, beraz arazo onetan, eztabaida onetan, leentasu-na berana zan, baiña beste nekazariak, bere aurrez aurrez egoan baserritarrak ez eban olan ikusten, bere gurdiaz bere bidalian asieratik urbil egon arren, ez eban itzuli gura. Gizon au adinekoa, Antzonekoa mutil gaztea, beraz zaarragoa zan.

Antzonekoa kezka zalea ez zan, borroka zalea, bake zalea baiño. Naizta arazo onetan zuzen-bidean izan, eztabaidan asi baiño leenago ta zaarragoari dagokion itzalpenagaitik, estartea, gurpidea, eragozpen barik itxitea erabagi eban. Antzonekoak bere idiak gurditik azkaturik, bere esku biakaz gurdia atseko aldetik oratuta indarkada bateaz arri-bidean ezarri, au da lunetara burdiaren alde bat jaso, geroago burdiaren beste aldetik oraturik, bardiña egin eban gurdi osoa arribidean jarri, beste baserritarrari bidea, estartea, eragozpen barik opatuz. Baiña Antzonekoaren lanak ez ziran amaitu, errotara joan al izateko gurdi ta idiak barriro estartara jaitsi bear ebazan, oraingoan indarkada motel batzuk eginik, errotarantz abiatzeko gertu egoan.

Baserritarra ta beragaz joiazan lagun biak arrituta geratu ziran. Alde batetik arrituta ziran Antzonekoaren indarragaitik, baiña baita be mutil gazte onen gizontasunagaitik, ba da naizta bere erritarrak egin eutsone ez ondo eritxi, gaitzpenik gabe ta adiskide bezela agurtu ta alden du zan.

Gaurko gizartearentzat eredu polita, bikaiña. Gaur egun alkar-izketa zentzundun bitartez gure arteko arazoak zuzendu bearrean, arazo txikienagaitik eztabaida saratsuan aurkituko gara. Gaur egun ez da erreza, ez, alkar ulertzea. Ez ete da au gure zoritxarraren zioa? Gure gizarteak zetarako dau izkuntza doe maitegarria? Gaur egun euskotarrok alkar ulertu ezina, euskera bazterturik ele ezbardinetan itz egiten dogulako, ez da izango?

Ikustea da gaur egun nire errian, nire jaiotze errian, Urduluzen antziñako estarta, gurdibideak. Baserritarrak gaur egun euren baserrietara kotxe eder, dotoreetan joaten dira. Kotxe ta trator ederrak basetxe alboetan ikusirik, pozgarria benetan. Baiña tamala da, oso mingarria, gure erriak ekonomi aldetik, bizibidean izan dauan aurrerakuntza, bere izkuntz, bere nortasunean izan dauan aldakuntza era bardiñean, zuzen-bide bardiñean ez izatea? Gaur egun gure basetxeetan geienbat gaztelarra da izkuntz berezia, gure baserrietako auzunetan euskera oso gitxi entzun al izango dozu. Eta nire itaun, galdera, da, ain gaitz,

zail, da kotxe dotore, garesti bat gidari al izateko gure izkuntza baztarturik atse-rritar gaztelarra erabiltea? Ain itsusi, motza, da euskera, euzkotarrok betirik geu-geurea izanik, bere ordeaz beste izkuntz arrotz bat min-ganean oillaturik erabilteko? Sakontasun osoz euskatorrok oldoztu bear dogun arazoa ta ain-bat lasterren osaki senda-erazle bat euskotar-gizarte gaixoari ezartzeko.

Nire aldian, ume ta mutiko kozkor bat nintzanean, errietako jaiak pozez, alaitsu itxaroten genduzan. Errietako jaiak euskotar oituran oso sustraituta ziran, eta ez ain zuzen be egun orreitan izaten ziran jolasketakaitik. Aldi aretan errietako jaiak sendia, aideak, alkartzeko geien bat ospatzen ziran. Olako egu-netan, erriko jai-aldietan, edo ileta anbatan izan ezik aideak, senideak, batzeko, alkartzeko, aukerarik ez eben izaten.

Aldi aretako alkar-bideak, oraingolakoak ez ziran. Nire jaiotze erritik, Urdu-liztik Laukiz edo Katikera joateko aldi labur baten faun zaar bat, autobus zaar bat, izaten genduan, baiña oiñez be aitita-amama, osaba izeko, adideak ikuste-ra, eurakaz alkartzera, pozik joaten giñan.

Baserritar umetxuak erriko jai-aldietan pozik eta batez be zain noiz ikusiko aide, senide anbat, eurakandik errial bat edo beste opari bezela beti itxaroten genduan, gero arratsaldean erriko zelai edatsuan leenengo aurkitzen genduan gozoki saltzaileari pitxi edo gozikiak erosteko. Umetxutako ames zoragarriak!

Laukiz, Urduliztik urbil dagon erritxu politan Mikel Deunaren jaiak ospe-tsuak dira. Beste jaiketa batzuan artean bertako idi-demak garrantzitsuak dira, entzute aundikoak. Nekazariak, geienak beintzat, eusko-kirol onen zaleak izan-ik, egun orretan Laukizen baserritar eta baita uritarrak be ugari, batzen dira. Ez naz guztiz ziur, idi-demakaitik, diru-jokoagaitik, onetan be, joko-zaletasun-ean be baserritarrak ze ikusi nabarmena dabe, ala ondorengo jan-tropeagaitik Laukizen Mikel Deunaren egunean, notintsa ikaragarria batzen dan.

Izan be Laukizin ederdo jaten da. Irakurle, Mikel Deunaren egunean Lauki-zera joan zaitetz. Beste jaki on askoren artean eumeki bikain sukaldetuta jan al izango dozu.

Mikel Deunaren egun baten Antzonekoa be Laukizera, jai ospatu naian joan zan. Mutil gazte izanik jaiak guztatzen jakozan, eta nori ez, izan be jaiak gaz-teentzat dira edo biotza gazte dabenentzat.

Egun aretan arrastian, iluntzean Antzonekoa Urduliztar bere lagun batzukaz azkari-afari antzeko bat jaten egoala, jantetxe beratan Laukiztar bat lagun ebala, Mungiko albaiteara sartu zan. Oneik be, beste askoren antzera afaltzen etozan. Lurralde aretan Mungiko albaiteara bai bere laguntzagaitik eta baita be pultzo-lari indartsu trebea ei zalako, ospetsua zan.

Naizta iñoiz alkarregaz egon-gabeak izan, Laukiz eta Mugitarrak Antzone-koa ikusi ebenean, Antzonekoa azkaltzen egoan mai ber-beratara abiatu ta ber-tan jezarri ziran. Jan-edan aldian Antzonekoa ta bere lagunak alkarregaz luzaro

jardun eban. Euren berba-aldian, jakiña, azkenean indar gaia nabarmenki izan zan.

Mungiko albaitearak eta Laukiztarrak Antzonekoa zirikatuz, apur bat berotzea, sututzea nai eban, ardao ta txola batzuk opatuz, pultzokara auxukatzeke.

Antzonekoa erri askotatik ibilliko gizona zan eta ez leloa, ta bereala bere maikideen zator-jokoa zein zan susmau eban. Gure indartsua bake zalea zan ezkerero bere maikide lagunakaz txantxetan jarraitu nai eban, baiña albaiteara gizon ekinkorra izanik, azkenean Antzonekoa eurakaz pultzokada bat egitera beartua izan zan.

Antzonekoa ta albaiteara aurrez-aurrez mai bat erdian ebela jezarririk, euren eskuak alkar estutu onoren pultzokada asi zan. Antzonekoa, albaitearak zuzen ez ebala jokutzen, bereala konturaturik, birritan edo iru bider bere aurkakoari egiten eban ziztrin-jokoa adierazo eutsan. Azkenean Antzonekoa bere aurkolarriaren jokaereaz asarraturik, paparretik oratu, bere buru ganetik, Antzonekoan buru ganetik jaso ta mai beste aldera jaurti eban.

Mungitar eta Laukiztarrari iseka au larregi eritxion, albaiteara bere erritarren artean gizon ospetsua izanik, iseka au bere aomen ona lurrean zala ikusirik, mendekatzea asmau eban, makila batzuk euren eskuetan zirala Antzonekoari lepo-bete emonda. Asmau ta egin, jantokiko argiak amatau ebezan, aldi aretan kandela edo argiziri izango zan. Antzonekoa jan-gelatik urtetan asi zanean, beko gelara edo edantegira eldu baiño apur bat leenago, iru gizonak borroka gogorrean asi ziran. Antzonekoaren aurka beste biak. An izan zan oiua ta txilioa neskame ta bertako gizonen artean! Geienak ez ekien zer jazoten zan. Iluntasun aretan Antzonekoak leenengo urreratu jakonari bere erpelako atzamarrak bota eutsozan eta garritik-oraturik bere buru ganera jaso, Antzonekoaren buru ganera jaso, eta onelan argitara atara eban.


Antzonekoak, berantzat ain astuna ez zan zama aregaz argitara eldu zanean bakea lortu eban esanez, Ez bildurrik izan!

Antzonekoa bere eskuetan ekarrana mungiarra zala konturatu zanean, esan eutsan.

Zeu zara? Andratxu bat ziñala uste neban. Plaztadatxu bigun bi Mungiarri emon eutsozan eta jaiak jarraitu eban.

Arrokeria irakurle, grifña txarra da. Antzonekoa ez zan arroa. Indartsua zan gizon indartsua zan eta aldi aretan soin-indarrak gizona gorengo mailetan ezartzen eban, baiña Antzonekoak bere indar-ospea apaltasunez eroan.

Gure abenda zaarrak, euskotarren artean gizon indartsuak beti izan dauz. Baiña gure asabak indartsuak soñiez, gorputzez, uts utsean ez zirala, uste dot, nire eritxiz euren buruetan be ba eban indarra, argitasuna. Buru argikoak ziran eta ezaugarriak doguz baitzatzeko.



Burutik eta beso batetik oratuta...

Goi-epailea iraundu al izateko, jakiña da, euskeraz ez dogula itzik. Iberika lur-adarrean Euzkadi izan ei zan kristautasuna azkenen onartu eban erria, beintzat kondairak olan diño. Aldi aretan, kristautasunara biurtu baiño leenago, gure erritarrak beragan siñisten ez eben notin bat, izaki bat iraundu al izateko, ez eben bear ezelako itzik. Zelan beragan siñisten ez dan izaki bat iraundu lei? Burugabekeri aundiagorik asmau lei? Izan ez dan zeozer, zerbait iraintzea baiño burugabekeri aundiagorik asmau lei?

Gizaldi batzuk geroago, Euzkadi kristautasunera biurtu zanean, bardin jarraitu eban, zetarako ikertu, asmau, itz zakarrik ain Jaun on, zuzen, gauza guztien egillea iraundu al izateko? Kristau bat biraoka entzutean, zer deritxazu, irakurle? Zelakoa da olakoaren burua. Berantzat ain maitegarria dan izaki obegabedun bat iraintzen dauanak non dau burua? Burugabekeri aundiagorik asmau lei? Gure asabak buru argikoak ez ba ziran izan, ekintsa oneik argi agertzen dabe.

Euskalerrian zoritxarrez anai arteko borroka larregi izango dogu. Gaur egun be, euskotarron artean alkartasuna baiño gorroto ta alkar ikusi eziña geiago da. Zer ete da gure zoritxar guztien errudun bereziena? Geure arteko borrokakaz, geu gara gure aberriaren etsairik aundienak. Geuk baztarten dogu gure izkuntza, gure oitura ta kulturea. Beste laterri baten izkuntza, kulturea ta oiturak onarturik, geuk baztarten doguz gure euskera, oitura ta kulturea. Ondo da bai, alik izkuntz geien jakitea, beste kultura batzuk ezagutzea, baiña gure biotz eta espanetan, gure izkuntza, kultur eta oiturak izanik.


Antzonekoaren aldian be, olako borroka, matxinada bat izan zan, karlistada gudea. Antzonekoa guda, borroka zalea ez zan. Bake zalea izanik, guda aretan, karlistadan, tartekoa kide, ez eban nai izan, ez bat ez besteen aldean. Bere eskuetan izkilurik artzea ez eban gura nai.

Aldi aretan, karlistadan, Patxo Fano ta bere lagunak, bertako mutil gazteak gudarako lerroratzen erririk erri ebiltzan, jakiña euren alde jokatu egin.

Antzonekoa ta bere lengusi Erramon Iraolaga, guda aretatik iges egin gurean, itxasontzi baten alogeratzea, erabagi eben.

Iraolaga'tar Erramun, mutil gaztea bera be Urduliztarra zan eta erritarrek esaten ebanetik naiko indartsua, naizta ez bere lengusu Artaza'tar Juan Bautista aiñakoa. Erramun mila ta zortzireunde ogeta amabian azkenengoz Ameriketarantz joan zan, ez zan arrezkero erriratu, ogeita amairu urte ebazala bertan, Ameriketan ilik.

Antzonekoa ta bere lengusua ile batzuk geroago Portugaleten itxasontzi bat artzeko asmuz, Getxorantz abiatu ziran. Bidali au, Urduliztik Portugaleteraiño-ko bitartea oiñez egin bearko eben. Itxas baztarretik Algortatik Areetarantz joiazala, Patxo Fano ta bere gudaritzako lagun biaz topo egin eben. Aurrez aurrez topatu ziran. Karlista gudariak euren iskiluakaz etozan, eta lurralde a



Ibai-zirga esku bateaz eutsiten eban.

iges egiteko ez zan bat be egokia. Alde batetik itxasoa eta beste alde guztietatik Zelai zabal-zabal, garbi garbia eta aurrez aurrez Patxo Fano ta bere lagunak.

Erramunek ez ebela iges egiteko aukerarik, bere lengusuari esan eutsan.

Lengusua galduak gara. Ara or Patxo Fano ta bere mutilak.

Bai alantxe dok, Antzonekoak erantzun, baiña ezik izan bildurrik, aurrera, nasai jarraitu eurakaz topo egin arte. Aurrez aurrez garanean, euren eskuetan etsimendu egiten garala aleginduko dogu, ta gure esku-mendean aurkitzen diranean, txistu baiño ariñago euren iskiluakaz jabetuko gara, gero lepo bete emon ondoren Iskilu ta guzti Portugaletera joango gara. Aurrera ba, orren iruron bildurrik, gure eskuakaz oratu ezkerro, ez dogu izan bear.

Gure gizon biak, Antzonekoa ta Erramun, Patxo Fanogana urreratu zira-nean, onek esan eutsen.

Zelan mutilak? oraingoan ez dozue iges egiterik, neugaz etorri bear dozue.

Antzonekoa ta bere lengusu Erramunek asmau eben lez egin eben. Patxo Fanogana apal apal urreraturik, etsaimentzera joiazala agertu naian. Patxo Fano ta bere lagun biak entzinduta ikusi ebazanean, Antzonekoak erpekada bateaz Patxo Fanori bere buru ta beso batetik oraturik, Patxo Fanoren gorputzagaz gudaritako bat lurreratu eban. Bitartean Erramun beste gudariak borroka gogorrean ebilen. Irukotza, Patxo Fano ta bere gudari biak, ondo astindu ondoren euren iskiluak arturik Portugaletera joan ziran.

Mutil gazte biak Portugaletera eldurik, uri polit onen nasan egoan itxasontzi baten itxasonratu, biramonean Ameriketarantz urten eben. Itxasontziko nagusi kapitana, Sopelako semea ta Antxonekoaren ezaguna zan.

Aldi aretan, antza danetik, lantegi baten alogeratzeko oraingo, gaur eguneko paper moltsoa ez zan bete bear izaten.

Antzonekoa itxasontzi beratan iru edo lau bidali egin ebazan. Bere lengusu Erramun leenengo bidalian Ameriketako lurraldetan geratu, bere errira, Urdulizera itzuli ezteko.

Aldi aretan Ameriketako bidalia luze ta arriskutsua zan. Ile luzeak ekaitz gogorrek jasan bear izaten ziran. Antzonekoak Euskalerriko ontzietan ezeze Frantzi ta Ingalaterrako itxasontzietan ibiliko zan. Aldi luzeak emoten ebazan itxasgizon bezela, lurreratzean bere baserrira itzulirik lurgintzan saiatzeko.

Karlistar guda amaitu zanean, Antzonekoa itzulirik, bere sendiaz lurrak lantzen, uztà egokiak lortu al izateko, gogotsu, gogor, saiatuz gero Negu luzean, kanpoan ekaitz izugarriak, etxeko ate, leioak, astintzen ebazan otsa entzuten zan bitarteak, itxasoan jazoriko gertaerak etxeko ta auzokidei edestuz.

Arik urtebete luzatzura, etxeratu zanetik urte bete luze igarota zan, Antzonekoa barriro itxasorako bere barne-grifak bultzaturik, Euzkalduna eritxon itxasontzian alogeratu izan zan.

Euskalduna itxasontziko nagusia, kapitana, Kortina'tar Ander Gaminiztarra, Plantzikoa zan, baita be gure indartsuaren urrun-aide ta beraz ezaguna. Orain-goan Antzonekoa kontramaestre ta lemazai bezela alogeratua izan zan. Beragaz lankide bezela bere erritar batzuk eta albo-erritarak be joan ziran.

Atserrira bidali batzuk egin ondoren, Euzkalduna itxasontzia Zorrotzako nasan egoan lantegi batera konponketa, barriketa, batzuk egiteko eroan eben.

Euzkalduna itxasontzia Zorrotzako lantegian egoala, nagusiari, kapitanari, itxasontziko langilei euren guztoko ez ziran lan batzuk eginazotea, bururatu jakon. Kapitanak Antzonekoari deiturik, zurgako irriatzea agindu eutsan. Antzonekoa ta bere lankideentzat egin bear au guztiz, osoz, bidegabekoa izanik, langile guztiak, Antzonekoa tartekoa zala, euren naigabea adierazo eutsen.

Antzonekoak arazo au dala ta, Kapitanagaz eztabaida garratz eta luzea izan eban. Naizta alkar-izketa au mingotza izan, kapitanak bere agindua ez eban baztarten eta Antzonekoak kapitanaren naia, guraria, bete bear izan eban.

Gorantz igotean, bai, beti gorantz igoten da, Antzonekoak banan banan somail guztiak apurtu ebazan. Bizkarrera eldu zanean, igon-zirga bere eskuakaz eutsiten ebala, zurgai jaurti eban. Ondoren jaitsitean beste soka-mailakaz bardña egiñik, guztiak banan banan satitu.

Soka-mailak, soka lodi, gogor batzukaz egiñak izaten dira, gizon arrunt batek bere eskuekaz apurtu eziñekoak, baiña Antzonekoa zeregiñ onetan, indarraz ez zan edozein.

Antzonekoa asarraturik kapitanagana bere lan-sari garbitasuna eske, ondoren Euzkalduna itxasontzia itxiteko asmuz, joan zan.


Antzonekoak itxasontzian egin ebana ikusirik, Kapitana bildurtuta bere logelan estaldu ta bertatik urtetzen ez zan ausartzen. Baina Antzonekoa gizon oso adikorra izanik eta ez gorrotoduna, Kapitanagaz epe laburrean baketu zan.

Antzonekoak nekazaritza ezeze itxasgizon bezela be, itxasgizon langile bezela, gaitasun, trebetasuna, nabarmenki ageru eban, Frantzi ta Ingalaterrako itxasontzietan alogeratu izateak olan adierazoten dausku.

Erritaratuta Antzonekoak bere basetxean luzaro ez eban iraun. Itxasoak era-karriten eutsan, beraganako Antzonekoak baztatu ezin eban eragile miragarri bat eban. Baiña gure gizonak basetxea ez eban aitzutzen, itxasoan eskuratzen ebazan diruakaz palda, lurralde barriak erosten ebazan, eta bere erri Urdulizen ez soilki, baita be Sopela ta Barrika alboerrietan be, onelan bere garazle griña, gaitasuna, agertuz.

Antzonekoa Euzkalduna itxasontziko nagusiaz izan eban izkalditik epe laburrean, arik ila batzuk geroago Madrileño eritxon itxasontzian nagusi-orde bezela alogeraturik, leenengo bidali biak Bartzelona ta Valenzi izan ziran.

Itxasontzi beratan, Madrileño itxasontzian, Ingalaterrara bidali batzuk egin ebazan. Onetariko bidali baten, Liverpoolen itxasontzitik, Madrileño itsasontzi-



Ertzain biak lurreratu ebazan.

tik lurreratu zanean, bertako nasan Antzonekoak gizon bi borrokan, alkar joten ikusirik, gure gizona borrokalariai baketu naian euren artean sartu zan.

Nasatan, laterri guztietako nasatan, olako matrakak bertan bizi diran bitxi-kuma artean egunerokoak izaten dira. Baiña sarritan jazoten dan lez, Antzonekoaren guraria, bakea lortzea, borrokalariek ez eben ontzat artu. Eta ara non, on egin gura eban, on egin gura eutsen gizona, jo ta iraintzen saiatu diran. Jakiña, borrokalariek Ingalaterratar, iraiñak euren izkuntzan esango ebezan, baiña Antzonekoak euskeraz uts utsean itz egin arren, itxasgizon geinaeri jazoten jakez lez, ingalatar eta frantsez be apur bat ulertzen eban, orregaitik apur bat gora bera gizon-matraka-zale areik zelako bitxiak botatzen eutsoezan, ba ekian. Azkenean Antzonekoa eurakaz asarraturik, ukubilkada banagaz borrokalariai biak lurreratu ebazan.

Antzonekoak jaia amaitu zala uste eban, baiña bai, arik laster uri beratako udalzain bi gure gizonaren aurrean aurkezturik, eskutur-burdin batzukaz lotuta, Antzonekoa ta borrokalariai biak uri-barnerantz epai-etxera eroateko asmuz abiatu ziran.

Antzonekoak bere atxilotzea zuzengabekeri lez arturik, sumin-asarratuta zirkinkada bateaz bere eskuturretako lokarriak apurturik, udal-zaiñak konturatu ziraneko lurreratu ebazan. Izkaldi au ikusirik, gizon-aldra aundi bat borrokalariekagana urreratuta danan artean Antzonekoa barriro atxilotu al izan eben eta epai-etxera eroan.

Antzonekoa auzitegian epaitua izan zan, zerga txiki bat eta bere bizian Liverpooleko nasan oinperatzea debekatu eutsen.

Zuek irakurleok, liburutxu onetan agertzen diran gertaerak ipuiñak dirala, uste izango dozue, baiña ez, ez dira ipuiñak jazorikoak dira, ba leiteke apur bat aundiagotuak izatea, baiña Antzonekoaren kondaira zati bat da. Liverpooleko gertaera au, uri aretako auzi-etxean baieztatu al dozu.

Oraingoan Antzonekoak itxasoan aldi luzea eroan eta Liverpooletik urten baiño leenago, bere errira eldutean bere emaztegaia zan Iturriaga'tar Manuela-gaz ezkontzea erabagi eban.

Katikeko eleizan, bere emaztegaia erri onetako zan, mila ta zortzireun berrogeta zortziko irailaren batean ezkondu ziran. Lau seme-alaba izan ebezan, bi gizonezkoak eta beste biak andrazkoak. Liburutxu onen asieran agertzen dan lez gizonezkoak itxas-gizonak izan ziran.

Arik urte bi ingurura Antzonekoa barriro itxasoan zan, oraingoan Julian Unzeta eritxon itxasontzian nagusi-ordez alogeratuta. Nagusia Aurtenetxe'tar Joseba izanik, Dobaran'tar Martzelino ta Aurtenetxea'tar Liborio laguntzaileak zirala. Itxas-bidali au Aurtenetxea'tar Josebaren azken itxas-bidalia izan zan. Bere lekuan Dobaran'tar Martzelino Julian Unzueta itxasontziko nagusia aitatu eben.

Julian Unzueta itxasontzia beste bidali baten, itxas zabalean ekaitz gogor gogor bat jasan ondoren, erdi ondaturik Santo Tomas deritxon izarora eldu ta bertako uretan itzi bear izan eben.

Aurtenetxea'tar Liborio, Gaminizko semea, bere zaartzaro luzea uri polit onetan izan eban, eta beragandik dakiguz Antzonekoaren jazoki asko, berak sarritan bere sendi, aide ta erritarrei edesturik, abots abots gertaera oneik gugana eldu ziran.

Antzonekoa ta Aurtenetxea'tar Liborio ontzi, itxas-ontzi baten baiño geiagotan alkarregaz ibiliak dira eta beraz adiskide zintzoak.

Aldi aretan Urduliz eta albo erriko lurraldetan itxas-gizon ugari zan, Antzonekoaren seme biak be itxas-gizonak ziran. Une onetan, Antzonekoaren seme-tzaz edestutako, nire aitak edestutako gertaldi bat, burura jatost.

Antzonekoaren seme biak Gaminitz, Plentzin, bizi ziran eta itxas-gizonak izanik, etxeratu barik luzaro egoten ziran. Lurrean, etxean geratzen ziranean euren ama alarguna ikustera joaten ziran. Naizta anaiak itxas-ontzi ezbardinietan ibili, beñiola aldi beratan euren etxeetan aurkitzen ziran lez euren amagana egun osoa emoten joatea erabagi eben. Antzonera joatea.

Urdulizko aide, senide, batek Antzonekoaren seme biak erritik zirala jakin ebanean, Antzonera eurak ikusten joan zan, baiña Juan Bautista ta Erramon Antzonekoaren semeak, Butroi auzune politarantz bidali bat egiten joanak izanik, Manuela euren amak olan adierazo eutsan. Bereala gure gizona, Antzonekoaren aidea, Elortzatic Butroirantz abiatuta, lau-bidetik urbil, bitarte laburrean, mutiko bateaz topaturik beragana urreratuta itaundu eutsan.

Zu mutiko, gizon bi emendik Butroirantz joaten ikusi dozuz?

Bai ikusi dodaz, mutikoak erantzun eutsen, gizon bi mutiko bateaz or urbil doatzuz.

Artaza'tar anai biakaz joian mutikoa Urduliztar gizon naiko goi bat zan. Antzonekoa seme biak sendo ta luzeak, goiak, ei ziran. Mutil arentzat Artaza anaiakaz joian gizona mutiko bat dirudian.

Gertaera onek Antzonekoagaz ez dau zer-ikusirik, bere seme-alabak euren aita il zanean, umetxuak ziran.

Beste bidali bat itxasoz egin ondoren, Antzonekoa bere seme zaarrenaren jaiotzerako etxean geratuta, urte bete inguru lurgintzan saiatu zan. Antzonekoa lurren luzaro egoteko gizona ez zan, beña itxasoak erakarritzen eban, toki barriak ezagutzea atsegin izaten jakon eta orrelan, itxas-gizon eta lurgintzan, bere bizi laburra joan jakon. Naizta lurralde edatsuak, palda edatsuen jabea izan eta baita be abere ugarien jabe izan eta eurakandik eskuratze egokiak lortu, itxasoz bidaliak egitea bearrezkoa zan.

Gure erriak, Euzkadik, Ingalaterragaz arremanak betirik izan dauz. Enkarterri ta inguruetako meaztegietatik gure asabak antziña laterri onetara burdiña,

burni-arria, bialtzen asi ziran. Arrezkero erri bi oneik artean sal-erosketa, arremn ugari izan da, mendez mende izan da. Zorionez gaur egun be olan jarraitzen dau.

Antzonekoak Kortina'tar Anderregaz izan ebazan asarreak aitzuta ziran eta barrero Kortina jauna Euzkalduna itxasontziko nagusi zala, bere menpean lan egiteko sukaldari lez Antzonekoa alogeratuta Ingalaterrara bidali batzuk egin ebazan.

Londresko nasan egozala, Euzkaldunako langileak gizon indartsu bat, ospetsu bat, uri aretan bizi zala entzun eben. Ameriketar baltz bat zan, boxeolari ludiko txapelduna ta laterri aretan, Ingalaterran, zirkuetan eguneroko ogia lortzen ebana.

Antzonekoaren lankideak bere baimen barik baltz onegaz, obeto esanda Ingalaterrako talde bateaz saio bat antolatu eben, talde bakoitzak eun libra jokatu. Zorionez aldi aretan gure errian euskera zan erabilten eben izkuntz bakarra, baiña Euzkaldunako itxas-gizonak Ingalaterraz be apur bat ulertzen eben eta zelan edo alan, baltz orren lagunakaz ulertu ziran.


Antzonekoaren aldekoak eta baltzaren aldekoak edantegi baten batu ziran, non obeto olako gertaera baterako. Edantegian dema au asi zan. Talde bakoitzak bere gizona txapeldun ezartzen eban eta zurrutada ta zurrutada bitartean, euren barneak berotuta, Antzonekoa ta baltz onen artean saio bat egitera eraturik, talde bakoitzak eun libra jokatu. Aldi aretarako dirutsa aundia. Euskotarrak joko zaleak izan dira betirik, idi-dema, pilota ta beste eusko-kiroletan gure erri-tarrak beti jokatu dabez dirutsa aundiak. Kortina'tar Ander be euren tartekoa izanik, eta ez atserengoenatarikoa.

Talde biak eratu eben saioa egin baiño leenago, Antzonekoa bere taldeki-deak alkar-jote orretan talde izan eiten, ondo lorindu bear izan eben. Antzonekoa auzkalaria ez zan, baiña borroka orretan bere erri, Euzkadiren ospea jokatzen zala ta azkenean onetsi eban. Beste alde batetik bere lankideek Kortina jauna aurretik zala, adin-gabeko borroka ori, leiatsu eskatzen eutsoen.

Antzonekoaren aldi, bizitzan, soin-indarra oso garrantzitsua zala argi ikusten dogu. Gaur egun be eusko-kiroletan, geienetan beintzat, nabarmenki indarra agertzen da, or doguz arrijasotzaille, aizkora, soka-tira, idi-demak, gizon-proba, eta abar. Aldi aretan gizona, indarrak, indartsua izateak, Jaungoikotu egiten eban. Izaki-bizi berezi bat iiruditurik, bere erriarren artean goraldua.

Indarra, soin-indarra, gizonarentzat onbide zoragarri bat dala ez dot esango, baiña zoritxarrez gaur egun be ludi onetan gizartearentzat kaltegarriagoak diran beste indar batzuk ba dira, Iskilu-indarra, gogorkeria, jauntzargo ta sarritan jakituri-indarra be bai.

Luditarrak, gizartearen indar guztiak bere onerako ezarriko balitzakez, ludi alai, baketsuago bat izangó litzake. Indartsu, altsuak euren ongasun, euren diru,



Baltza ilda jauzi zan.

onibar, almen osoa, lagun-urko, txiro edo makalagoa menperatu bearrean, eura-kaz beartsuakaz zuzentasunez, anaitasunez, gizontasunez jokatuko balebe, gizarteak baketsuago izango litzake, ta beraz alai, bizitza atsegintsuago.

Ludi onetan, gure gizartean, anaigabetasuna edo anaigabekeria, gorrotoa ta alkar-ikusi eziña larregi da, ta zio onein ondorioak zelakoak diran argi ikusten doguz. Gorrotoak gorroto geiago daroa, gogorkeriak gogorkeri geiago, ta anaigabekeriak sendi ukatzea ta beraz gizartearen ondarena.

Bakea, alkartasuna, parkamena, benetako kristautasuna, oneik dira oiñarriak laterri, gizarte bat zorientsu, alai, itxaropenez bizi al izan daiten. Oiñarri oneik bazterturik, laterri, erri, aberri bat eraikitzen jarraitzea alperrikoa da. Laterri, gizarte oso uztela eraikia izango da.

Baiña nire asmakisunetan liburu onen aritik apur bat aldendu naz eta Antzonekoagana itzuli gaitezan.

Antzonekoa ta ameriketar baltzaren borroka, saioa, uri aretako kirol agintarien baimen osoz izan zan. Kirol-lauki bat eraturik, beratan Antzonekoa ta gizon baltza barneratuta, gure kirolariak euren saioa egiteko gertu egozan. Antzonekoaren burkidea kirol-soiñekoakaz jantzita, praka laburrak eta bular-sorbaldak bilosik eta ondo orioztuta. Antzonekoa ostera bere betiko soiñekoakaz jantzita.

Talde biak, olako gertareatan jazoten dan lez, saratatsu ebiltzan, bata Antzonekoaren alde ta beste taldea baltzaren alde. Antzonekoak baltzagaz beingo baten amaituko ebalta uste eban, baiña leenengo atzamarkadakaz, baltzak bere eskuetatik iges egiten eutsola, ikusi eban, eta iñondik ezin eutsola oratu, baltzaren gorputza orioz edo koipez beterik egoalako.


Baltza bera be Antzonekoagana larregi ez zan urreratzen, bere eskuetan jauzten bildur zan. Baltzak bere burpidea gizon indartsua zala ba ekian. Olan luzarotxu jardun eban, kirol orretan baltza Europako txapelduna zan, uste gabe ukubilkada bateaz, urdailean emon eutsan ukubilkada bateaz gure erritarra larri ezarririk, ez zan bat be ondo aurkitzen.

Antzonekoa bere indar guztiakaz baltzari oratzen ez zan ausartzen, bere burkidea eriotz bidean jarri leikeela uste eban. Baiña gogorrago jokatzea baiño beste biderik ez eban sumatzen garaila izatea gura ba eban. Kirol toki aretako sarata eta oiua amai-bakoak ziran eta azkenean bertako txaloak, saratak eta baita be baltzaganako borrokkak eragiten eutsan berotasun eta itsutasunez, bere erritarrei abots indartsu ta dardaratsuz esan eutsen.

Iltea zilegia balitz?

Bere lankideen erantzuna bereala entzun zan, bai zilegi dok!

Antzonekoak bere beso luze ta indartsuak zabaldua, baltzaganan urreaturik beso biakaz saietz alde bietatik oratuta ikaragarritzko indarketa bateaz, baltzaren saietzak ondatuz, il-zorian baltza Antzonekoaren iztar ganera jauzi zan. Une baltzuk geroago baltza gorpu zan.



Exabarra artu eban esku bateaz.

Kirol-toki aretako oi, txalo, saratak amaigabeak ziran, ildakoaren ardurarik toki aretan ez zan nabaritzen. Gizaki, gizasemeak bere barnean daroan basatikeria, oieskeria eztanda egiñik, gizartearen burugabekeria agertu eban.

Ludi, mundua danetik gogorkeria gizarteak beragaz daroan griña txar bat da. Gaur-egun be olako gertaera negargarriak kirol-tokietan jazoten dira, beintzat antzekoak. Antzifietako erromatar katamotz-saioak, gaur egun be era askotara nabarmenki dizdiratuta ikusi al doguz. Tamala da, gizona dala bere areriorik aundiena, jakitea. Basatikeria gaur egun maila guztietan aurkitzen da. Gai onen buruz, basatikeriaren buruz, niretzat ospetsu ta maite dodan gizon baten asma-kisuna jatorkit, olan diño.

Basatikeria naitza gizonak bere burua lumakaz apaindu ta bere gorputza, soiña, narruakaz estaldu, nai kopeleta ta frak-soiña jantzi, gauza bardin-bardiña da, Jaungoikoagan egiatzko ukapena. “El salvajismo, asi el hombre adorne su cabeza con plumas y cubra su cuerpo con pieles, o vista sombrero, de copa y frac, consiste en la misma cosa, en la negación práctica de Dios”.


Baiña basatikeriaren ta gogorkeriaren errudun uts utsean ez dira saio edo dematan jokutzen, jardun diranak. Eurak, jokatzek eragiten dausoen berotasunagaitik egikisun loi batzun errudun izan leitekez, jokalariak garaile nai dabe izan, ganera euren alderdiko ikusleak olan eskatzen dautse, baiña gizarte ta bere notin, pertsona, bakoitza gara errudun, geure jasapen eta olako kirolak eratzegaitik, geu gara errudun bakarrak.

Gertaera negargarri onen barria gure lurraldetara bereala eldu zan. Urduliz eta albo-errietan ez zan besterik entzuten, erritarren alkar-izketatan gai berezia zan, Antzonekoa ta bere indarra, Urduliz eta alboerrietako gizasemeen alkar-izketá gaia ori zan. Aldi aretan alkar-bideak urriak ziran, gaur eguneko irrati, telebista, egunkari, aldizkari, komunitate bideakaz aldi aretako gizarteak ez eban gozutzen, baiña albisteak, batez be olako izugarriak ba ziran, abots abots epe laburrean eltzen ziran. Antzonekoak baltzagaz izan eban borroka, Ingalaterratik etorriko itxasgizon anbatek ziurki gure errialdean zabalduko eban, ba da gure indartsua etxeratu, erriratu, baiño leenago ingurutako errietan be alkar-izketa gai berezia zan.

Antzonekoaren indar-ospea Bizkaiko lurraldetan ezeze Gipuzkoa aldean be edatzen joian, eta batek baiño geiagok, Giputz batek baiño geiagok Antzonekoa ezagutzeko gogo bizi bizia eban.

Euzkalduna itxasontzia Bilboko kaiara eldu zanean, Antzekoa bere base-rrian aldi luze bat emoteko asmoz lurreratu zan.

Ordurako, Antzonekoa etxeratu zanerako, baltzagaz izan eban borroka bere erritarrak ba ekien, baiña beragandik gertaera lazgarri a zelan izan zan jakin naian, Antzoneran erritar ugari urreratu zan. Itxasale aretan eta batez be bere errian, neurri bako indarra dala ta jaungoikotuta eban.



Zekulako indarketa egin eban.

Antzonekoa nekazari gizona zanean, bere basetze Antzonek ebazan palda, lurralde edatsuak landu ta beste lurgintza lanean saiatzen zan. Udabarriko egun baten, Antzonekoa ezagutzeko gurariak eragiñik, Gipuztar gizon bi Urdulizen Antzone basetxea non zan itaunka, agertu ziran. Ezin izango jaken zaila Antzone baserrirako bidea, erri oso txikia izanik, bertako biztanle guztiak alkar ezagunak ziran.

Antzonekoa bere basetxeko aurreko solo baten, arto ta indabea eraitzeko sasoa zan ezkerro, bere idiakaz lurra lantzen egoan, Giputzek beragaitik arduratu ziranean, esanez.

Antzonekoa deritxon gizon indartsua, non bizi dan, mesedez esango dauskuzu?

Antzonekoak idiak zkatu ebazan, eta solo alboan itxi eban ezabarra esku bateaz ziri batetik oraturik, eta Antzone basetxera begira ezarrita, esan eutsen.

Antzonekoa, ortxe basetxe orretan bizi da, gure gizonak erantzun.

Etorri-barriak gertaera au ikusirik arrituta geratu ziran, eta unetxu baten ixil ixilik egon ondoren, euretariko batek esaten eban.

Antzonekoa zeuk izan bear dozu.

Bai, nire amak olan esaten dau, Antzonekoak erantzun.

Olako esakerak baserritarren artean sarritan izaten dira, bear ba da orregaitik uritarrak, baserritarrakaitik apur bat maltzurak garala esango dabe.

Gure lurraldetan ezabarra edo exabarra, deritxon lur-tresna, tramankulua, goldearen antzekoa da, ia guztiz zurezkoa, lau-bost bat metro luze ta berrogei bat kilo astun. Olako tresna bat ziri batetik oratuta, esku bateaz oratuta, etzatasunean jasotea, benetan gizon oso indartsu baten lana da.


Exabarra lurrean arto ta indabea eraiteko karkabea egiteko tramankulua zan.

Gaur egun lan ori egiteko tresna edo tramankulu bereziagoak dagoz.

Antzonekoak bere basetxean abere ugari eukan, oilo ta untxi, adi, arkume ta auntz batzuk, eurak be ugari, bei, idi, txal, beraz ederrak, amabiko bi bat eukazan. Abere onen artean Antzoneko kortan zezen eder bat, larogei bat erralde inguruko zezen eder bat egoan. Antzonekoak oitura eban lez zezena egun baten kortatik etxe alboko zugaitz baten, enbor baten lotu eban, bitartean gure indartsua zezena lotuta egoan solo beratan bedar apur bat ebaten saiatzen zan. Arterro aitatu dodan bezela zezena indartsua zan, eta zugaitzean lotuta ez egoan bat be baketsu, azkatasuna naian topekada bereziak jaurtitzen.

Azkatasuna izan be izaki guztiak maite dabe, bai, zalantza-gabe azkatasuna izaki, gizaseme ta errientzat altxorrik eder eta bereziena da.

Gure errian be, Euzkadin be, azkatasun egarria nabarmen agertzen da. Ia mende luze bi dira gure erriak bere azkatasuna galdu ebanetik, eta arik gaur egun gure gizarteak, eusko-gizarteak, aldi mingotz, samin eta neketsuak jasan bear izan dauz. Azkenengoa, anai arteko guda zital ondoren jauntzargo luze ta izugarria bat.



Doña XIRRU.

Katea eskuratu eben.

Euskotarrok, bearturik gara ba eguneroko lan eten-gabea egiten. Gure aberria azke izatea nai ba dogu lan eten gabea egin bearra dogu.

Leenago, aitatu dodan bezela zezena sagar-zugaitz baten lotuta egoan eta beraz oso urduri, kezkatu bere lotura apurtu naian. Antzonekoa zezenagandik oso urbil bedarra ebaten saiatzen zan bitartean bere lanean nasai zezenaren zain zan.

Zezenak olako teinkada baten bera lotzen, lotuten eban lokarria apurtuta azke geratu zan. Bat-batean, bereala, Antzonekoa ezbear onegaz konturatuta eta zezenari iges egiteko astirik emon barik, esku ta beso batez adar batetik eta beste eskuaz muzturretik, zezenaren muzturretik, oratuta izugarrizko indarkada bat egिँez, zezena lurreratu eban.

Antzonekoarentzat indarkada au bere ondamena izan zan. Aldi aretan osatu eziñekoa zan gaixoa, etendura, sorturik, azkenean ilobira eroan eban. Antzonekoak berrogeta lau urte ebazan, Antzonekoa il zanean berrogeta lau urte ebazan. Antzone bere jaiotze baserrian, mila ta zortzireun da berrogeta amaseian il zan. Ondilo gizon oso gaztea, sasoi onenekoa, baiña eriotzak ez dau adiñik. Bere alarguna, Antzonekoaren alarguna, Iturriaga'tar Manuela lau ume txikiak geratu, zaarrenak, Juan Bautistak zazpi urte ebazan eta gazteenak Erramonek urte bete barri bat.


Bere erritarrak esaten ebenetik, Antzonekoak zezenagaz izan eban indarke-ta au, iñoiz bere borrokatan edo dematan egin ebanik gogorrena izan ei zan.

Etendura gaixoa sortu jakonik aurrera, arik aurrera Antzonekoak, Basortuko azokan beste baserritar batzukaz izan eban borroka baiño indarkada aundirik ez eban egin.

Bilbon, gaur egun berebil, kotxez eta notiñez moltsotuta, erleuntz dirudin urian, Santiago Deunaren egunean aldi aretan abere-azoka ospetsua Basortuko auzunean izaten zan. Oitura onek oraintsu arte iraun dau, geroago beste aldi labur baten Zorrotzan ospatuz, baiña andik be baserritarrak bota dabez. Uri barneetan baserritarrentzat ez dago lekurik, euren uzaiña uritarrentzat ez da atse-gingarria, urrean. Baserritarrentzat abere-azokak, etxetik, euren etxetatik alde egiteko atxaki berezi bat zala, uste dot. Eguneroko lan gogorretatik ordu batzutan aldendu, arduragabetu, ta zergaitik ez bide-batez jan-trope bat eginda, egun eder bat emon.

Mila ta zortzireun da berrogeta amairugarren urtea. Bere anai zaarrenak, Erramon, idi bikote bat bear eban. Bere baserriko lanetarako Erramon Antzonekoan anai zaarrenak, idi bikote bat bear eban ezkerre, bere anai lagun ebalta Santiago Deunaren egunean Basortuko azokara idiok erosteko asmuz, anai biak joan ziran.

Artaza anaiak Basortuko azokan zear abereak, ain zuzen be idi bikote jaseko bat noiz ikusiko, ebiltzan. Azkenean euren guztoko idi bikote bat begiztatu



ANTZONE 1989 URTEAN

ARGAZKIA, IBAÑEZ TAR PABLO
Etxe aurrean ikusten dan zugatza, Gernikako aretzaren kimu bat 1959 urten landaratua, da.

ta euren erosle egin. Idien jabeaz oiturazko eztabaida euren sal-neurri buruz egin ondoren, arremana egin ta beraz idiakaz jabetu, Artaza anaiak idiakaz jabetu. Baiña idien sal-neurria ordaindu baiño leenago eurak, idiak, frogatzea bearezkoa zan.

Zeregin onetarako, saio onetarako, Basortuko enparantza baztarrean arrinarra aundi bat bere kate ta guzti egoan, anai biak euren erosi-barriak ziran idiakaz arri-narraren albora urreraturik, katea ziri batetik idien buzterrian sartzeko asmuz artu eben, zoritxarrez une beratan katearen beste muturretik arratiar talde batek oratuta eurentzat katea nai eben, eurak be idi batzuk erosi-barriak frogatu gura ebezan.

Talde biak, Artaza anaiak alde batetik eta katearen beste aldetik arratiarrak eztabaida gogorrean ebiltzan, baiña ez batek ez beste taldeak ez eban amor egin nai.


Talde biak kate-leentasuna norberantzat nai eban eta aziña izan jaken alkar ulertzea. Azkenean berbatatik, izketatik, eginkisunetara joan ziran, bata bestearen aurka tiraka asi. Arratiar taldea zazpi bat gizon ei ziran, eta zenbakiz beste taldea baiño geiago izanik, katea errez euraganatuko ebela uste eben, euren aurkako taldea Antzonekoa ta bere anai Erramon ziran.

Arratiarrak, Antzonekoa ta bere anai Erramonen leenengo zirgaldia jasan al izan eben, baiña bigarren zirgaldian, Antzonekoa ta bere anai Erramon atsean narraz joan ziran, obeto esanda, Artaza anaiak narraz eroan ebezan. Urduliztarak kateaz jabeturik, idiak frogatu al izan ebezan.

Oneik dira Antzonekoaren indar-egikisun berezienak, beintzat nik ezaguturikoak. Gertaera guzti oneik kondaira dira, Antzonekoaren kondaira zati bat, joandakoak dira, baiña an, Urdulizen bere baserria geratzen da, ta liburutxu au amaitu baiño leenago berari ta bere izenean baserri guztiei, Urretxindor ospetsuaren bertso batzuk eresi gura neukiez.

Biotz erdiko baserritxua
Nire jaiotze tokia
Zenbateraño maite zaitudan
Ez da erreza jakitea.
Zu zara gure bizi-bideko
Eguneroko ogia
Egun-sentiko txori abesti
Zoragarri ta bakea.
Zu zara gure izaki danen
Emoila ta jabea
Bereala ilgo litzake
Baserri bako uria.

Baserrian da gure izkuntza,
Euskera maitegarria
Euskal-oituren gorde-lekua
Fede sendoan aulkia.
Askok txikitzat zaukazen arren
Benetan zara aundia
Euskalerrri jaso nai ba dogu
Zaindu daigun baserria.



ARGAZKIA, IBANEZ TAR PABLO

ANTIZONE 1960 URTEAN

IRAKURGAIAK

Liburutxu au andana apur bat geiagoaz jasekotu naian, idazki, irakurgai oso garrantzitsuak, beintzat nire eritxiz, argitaratuko doguz.

Asiera bezela, Txomin Agirre idazle ospetsuaren itzaldi zoragarri, txukun, abesti liluragarria.

Betin izan dira ta gaur egun be ba dira, bai atserritarren artean eta zoritxarez euskotarren artean be ba dira, gure izkuntza, euskera, txiroa dala, ezjakiña dala, ta beraz il bear dauala esaten dabenak.

Ikusi dagigun Txomin Agirrek, euskeraren aurka ta euskeraren iletara joan nai dabenei, Kanpos Eliseos antzokian, Bilbon, mila ta bederatzireun da amaseian egin eban itzaldian, agertu eutsen erantzuna. Arreta osoz, irakurle, irakurri eizu. Olan diño.

“Euskera gaixorik dagola, ia ilean dagola. Gaixorik bai, ia illean Jaungoikoari eskerrak, ez. Baiña gaixorik ba dago, zein ez da gaixoaren erruki? Nola ez dogu euskera babestu bear? Noizko doguz sendagarriak? Zer egiten dabe zaintzaile izeneko gizon orreik? Nolakoa da, batez be gaixoa sendatu bearrean, geiago zauritu gura dauan sendagilea? Zelakoa da, bere ustez, il-zorian dagona, jo ta zapaldu gura leikean agintaria?

Benetan arritzekoa da gure izkuntzari erbestetar gizon maltzurak egin dautsoena, baiña askoz arrigarriago da geuk, euskaldunok, egin dautsoguna, ba da geuk jardun dogu geien bat euskeraren kaltean, geuk iraindu dogu erbesterarrek baiño geiago, geuk bota dogu geure espanetatik, geuk bota dogu, jaurti dogu, gure urietatik izurritz kutxutua dagonaren gisa. Bai, auzoetako izkuntz apaiñak ezagutzean, gure izkuntza, euskera, narraz eta baldarra iruditu dogu ta Euskalerriko semeak euskeraz berba egiten lotsatu egiten gara. Ori egin dabe, euren gurasoak goiztik gabera aberastu diranan edo zerbait ikasi daben ume doilorrak. Geurea da errua, geurea obenik aundiena.

Euskotarrok, neure anaiak, ernaitu zaitetze ta bide barriak artu daiguzan. Nik ba dakit eder-zaleak zariela ta edonungo ederrari abegi ona egiten dautsozuela. Ordu onean izan dedila, baiña ez daizuela orregaitik euskera iñon ukatu, ez daizuela euskera beste izkuntzak baiño txikiagotzat euki. Euskalerrria jaiio zarien guztiok, aundiki ta beartsu, aundikiak batez be, bere erri ta erbestetan, etxe barruan eta plaza erdian, Jaungoikoagaitik, euskeraz egin eizue.

Oo euskera kutun nire izkuntza! Ez zara iñoren lotsagarri. Iraunkorra zara Ernioko gailurak aiña. Lerdena zara Anbotoko erpinen irudira, garbia zara Aitzkorriko edur zuria beste, liraiña zara Aralarko aingeruaren gisa, neurea zara ta maite zaitut. Zure Kopeta zabalean aintziñako jatorri onaren kera ta kutsua dauskuzu, zure sorbaldean, izkuntza-gurasoen soñeko apaiña daroaskuzu.

Naiz ta gaur mendi baztarretan apal egon, zure bizitza luzean alderdi askotan on egiña zara. Zuk emon dautsezu beste izkuntz askori zure izatearen mendua, zure argiaren izpia, zure suaren txingarra, zure odolaren gorriunea. Izkuntz-orreik arro ta gangar ba dabiltz be, beti zorretan egon bear ko dabe. Zuri gura dautsut eresi. Oso aurtxo nintzala, oraindik otsaratxuan nengoala, ama laztanaren aoz sartu ziñan nire biotzean eta ordutik aurrera nire biotzean zaitut. Ez zara niretzat egundo txiro ta itsusi. Zu zara niretzat izkuntzarik gozo, guri, mamintsu ta zoragarriena. Ondiño eze zagoz, ondiño kemena dozu, ondiño lora barriak emoten dozuz. Gure animetan dago ta gure animetatik atarako dogu azia. Guk eraingo zaitugu solo, landa, ibar, baso ta lur guztietan. Erneko da oparo zure landara barria, gure izerdiaz eta bear ba da gure odolez narotuko dogu eta geuk azaldutako dogu azkenez beste izkuntzaren erdira, onela esanez, ara emen euskera, gure izkuntza, ikusi eizue zein mardul dagon, begira eizue ze egoki apaindu dogun. Ori egin ezik ez giñake seme onak izango. Gora zu, nire izkuntz zaarra! Gora euskera maitegarria!

Eta gure lanean diardula, iñok ezer esan eta ixilik egoteko esango baleuskigu, agindu ori, aitz ganean dagon arranoak, arranoa dala ta besterik gabe, baso itzaleko urretxindorrari esango baleuskio bezela.

Ixilik, itxi eizu zure jarduna, ixildu zaitez.

Ixildu nedilla, esango leukio txoriak. Ezingo naz ixildu, berezkoa dot nire txio txio jotea. Errekarteko iturriak bere murmurra bezela, zelaitako lorak euren usain berezkoa daben antzera, kendu eidazu nire bizitza, baiña ez nire izkuntza, ba da neuri dagokion txio barik, ni ez naz urretxindorra.

Era bardiñean esan daikegu euskotarrok, jakin eizue agintariak, gure min ganera euskera berez datorkigu. Euskotarra euskera barik ez da euskotarra, eta euskotar izatea ezingo dauku iñok galazo”.

Ara emen, Txomin Agirrek egindako itzaldi zoragarria. Ezaidazu irakurle, ia ez ba da benetan idazki eztitsu, liluragarria. Idazle onen itzaldi ta idazkiak baztarretan sakabanaturik ugari egon bear dabe, eta zergaitik guztiak bere lan guztiak, ez dira argitaratzen? Benetan dira Txomin Agirren idaz-lanak eresi liluragarriak, bai Bizkaieraz eta baita be Gipuzkeraz, euskera garbi ta ulerkorra berana.

Idazle ospetsu onegaz euskotarrok zorrean gara. Zor onetatik apur bat ordaindu dagiogun, eta zelan obeto, euskera dakigunok gure izkuntza obetuz, edatu ta baztar guztietan euskera dakigunok gure izkuntza obetuz, edatu ta baz-

tar guztietan euskera egiñez agertuz. Eta euskera ez dakienak ikasi, ta arduratu daitezala euren izkuntza berezia izan daiten. Euskera, gure izkuntza, eusko-aizeak, erri, kai, ondartzza, troka, mendi ta toki guztietara, eroan dagiala. Pitxi, altxor, liluragarria dala uste dot, edonun lotsa barik agertzeko.

Euskotarrontzat oso arduraduna deritxadan gaiatzaz jarraian jardungo dogu.

EUSKERA GURE IZKUNTZA

Gure izkuntza, euskera, euskotarrantzat garrantzitsua dala ikusirik, nire eskuetara eldu jatan orritxu bat agertzeraz ausartu naz. Euskotarrok gure izkuntza, euskera, gure arreman guztietan erabili ta zabaldu bear dogula, ez geure geurea dalako uts-utsean, baita be bere gozo ta aberastanagaitik, ba da kondairaren zear, ludi osoko kondairaren zear, zer esan ugari daukalako, euskotarrok ikusi dagigun, olako idazkiak garrantzitsuak dira.

Erbestetar gizon ospetsu batzuentzat gure izkuntza zein garrantzitsua dan ikusi dagigun. Jarraian irakurri al izango dozuna, irakurle, "Front og Bro" aldizkarian agertu zan. Magunziako Ikastetxe Nagusian batzar baten, bertako irakasle Anton Hilman Jaunak egindako itzaldia. Anton Hilmanen itzaldia, mila ta bederatzireun eta berrogeta amairuko urrilan Londogon irian, "Congreso de los Frisones del Norte" deritxon batzarrean, izan zan, bere berbaldia erri txiki eta Europa osoan galduriko izkuntzaren buruz izanik.

Hilman Jauna irakaslea euskalduna da, ondo ezagutzen dau gure izkuntza ta gure erria. Gure erri ta izkuntzaren buruz egin ebazan goralpenak, batez be euskera ez dakien euskotarrentzat, eurak irakurri al dagien, gaztelarrez ipiñiko dot. Olan diño.

"Nadie en Europa conseguiría provecho alguno si, por ejemplo, los Baskos que todavía hablan la única lengua arcaica y prehistórica Europa, abandonasen su idioma para hablar el castellano o el francés. Si tal sucediera, Europa entera empobrecería, pues desaparecería una lengua que, como pocas, remontaba a la más lejana antigüedad y puede dar la clave de grandes secretos y es que, en este aspecto, no solo muy interesante para la filosofía, sino objeto de veneración para todo hombre culto. El filólogo ruso Alexander Marr decía, "debiera erigirse una torre de oro para guardar al pueblo basko y su idioma, a fin de que no desapareciera tan preciosa joya. Y en verdad, quien se beneficiaría de tal desaparición? Vuelvo a insistir, todos quedaríamos empobrecidos, pues si sucediera esto, dejaría de existir en el mundo algo indeciblemente hermoso y simplemente precioso. Los baskos sobre todo y ellos antes que ningun otro, quedarían empobrecidos, muy empobrecidos.

Y si por desgracia el euskera viniera a morir, entonces nunca mas quisiera volver a Euskalerría, objeto para mi tan inefable cariño. Se me figura que entonces un inmenso e indescriptible velo de luto se extendería sobre las azuladas

montañas y verdes bosques de los Pirineos y la naturaleza entera, la tierra y el cielo se cubrirían de luto, porque nunca jamás, les sería posible ya a los hombres descubrir allí ni conservar, lo hermoso, lo venerad y lo sagrado”.

Ara emen Euskotarrontzat idazki pozgarria, gure erri ta izkuntz, euskeraren buruz, goralpen benetan liluragarriak entzutea. Erbestetarrak gure aberri ta izkuntza goraltzea pozgarria da, bai, eta apur bat ernaituko gaitula abertzaleztasun sutsu eta ekinkor bat sortu-azoz.

Irakurgaiei jarraituz, ara emen beste idazki sakon bat.

SENDIA

Sendia zer da? Pio XI garren, Aita Santuak, gizaldi sortzea dala diño. Gizaseme guztiak sendia maite dabe. Izan be, amets pozgarri onek, oroi gozoak gogora dakarkuz.

Etxe zaarrear, basoan, sartuta, estalduta sendia egon da, alan be gure biotzetan leenengo tokia da. Zer dala ta? Bertan gure maitasunik aundienak bizi diralako, bai aldi eder eta gozoak bertan emonekoak. Adiskideekaz egindako jolasaldiak, erreka-ibaietan arrinketan, baso-koipetsu, txori abiak bilatzea auzoko mailuki, kareiz, intxaur ta gaztanak artzen. Ama-amamaren altoan entzundako lapur, sorgin ipuiñak, aita-amak abestuta irakatsiko abestiak, aite-amabitxiak iñauteri egunean emondako mokotza, ikastolarako erositako leenengo oski ta jantziak, Leenengo Jaunartzea. Umetxutako zenbat oroi liluragarriak.

GAZTAROA.– Leenengo amets zoragarriak, ludi barriak adimen eta biotzetan. Maitsun esnatzea, maitasun-ikurra zan krabeliña bat maiteñoari eskeintzea, ondartza ta mendira egindako ibilaldiak. Oroi gozo, biotz-barnekoak gaztaroak be.

EZKONTZA-BIZIA.– Bai oroi gogoragarriak ezkontza bizitzan izanda-koak. Ain leiatsu, urduri itxaroten zan aurra ludian agertu zanean, leenengo irribarretxua egin ebanean, “aitatxo” “amatxo” leenengoz esan ebanean, oiñez albo alboka asi zanean, umetxua ate ostean ostondu zanean eta kukuka ebilanean. Zenbat oroi aitzu eziñeko gozo, atsegintsu, ezkontza-bizitzan.

ZAARTZAROA.– Soiña gogortu ta astundu egin da, indarrak auldu, keme-nak iges egin dau. Alan be, seme-alabak norberan ondoan ikustean, euren irribarre ta laztanak artzean. Ilobatxuek altoan edo besoetan eukitean, eurai ipuin zaarrak eta edesti zaarrak azaltzean, zenbat poztasun, zenbat gozotasun-aldi zaartzaroan be.

SENDIA.– Zorion iturria. Anai euskaldun! Jaungoikoa, oitura garbi ta euskeraren abi ta abaro izan bedi beti zure sendia.

Bai, sendia baztartzen ba da, sendia zatiturik, etenik, sendiak alkartasunari uko egiten ba dau, gizarte oso uzte baten biziko gara. Sendia da ta izan bear dau gizartearen oiñari, abaro ta babesa. Sendia maitatzen ez ba dozu, lagun-urko ta gizartea maitatzea oso zaila izango jatzu. Sendi buruz milaka goralpen esan al dozuz, ba da sendi-barne, sendi-bizitzan maitasunez alkar maitaturik, gizaki, gizasemeak ludi onetan gozatu al izan leikean atsegifiik gorengoena lortu al dau.

Beste alde batetik, sendi-maitaleek, lagun-urkoa maitatzea be errez izango jako. Ludi onetako atsegiña osotu al izateko, lagun-urkoaganako maitasuna bear-bearrezkoa da. Ludi, mundu, onetako arazoak, ulertu-eziñak, alkar-ulertu eziñak, eta ugariak dira, ta bakean bizi al izateko, alkartasun, lagun-urko maitasun bidez uts-utsean zuzendu al izango doguz. Lagun-urkoa maite dauan gizartea, laterria, bakea beragaz beti izango dau. Ain zuzen be, uste dot, lagun-urkoa, norberekoaia baztarterik, anai bezela on-artuaz eta une guztietan alkar-laguntzaz, erri, gizarte alai ta itxaropentsua craiki al izango dogu.

Gai onen buruz, lagun-urkoa maitatze buruz, nire aitagandik beiñola entzun al izan neban esaldi oso sakona adierazotera notzue, olan diño. Jaungoikoak gizaki, gizasemeari, egin leikoion mesederik aundiena, bere lagun-urkoari lagundu, ta berari, lagun-urkoari, mesede egiteko aukerea opatzea da.

Benetan egunero ta sarritan ausnartu bearrezkoa esaldia. Gure gide izan dedila, gure bizitza osoan gure gide izan bedi.

EUSKERA IKASKIZUNA

Uda bero, sargoritsua joan da. Uda aldiko jai, opor, bidai alai ta atsegintsuak kondaira dira. Udagoiena bere ego-aize indartsuaz landara ta zugaitzen orri, orbelak, astindu naian giroan, deika da.

Udagoiengan egoaizea soloetan geratzen diran uzta apurrak batzeko egokia izaten da. Naizta urte-aldi onetan egoaizea nekazarikandik on-artua izan, lurra legortzen dauan ezkeru, baserritarren etsai bezela ikusia da.

Baiña Udagoiengan aita-amak, gizartea larritzen dauan legortea, ortu-solo ezotasun-eza ez da. Irailean ume ta asitxuagoak be urtero euren ikasketak, ikasurtea, asiera aldia izanik, gurasoentzat sasoi oso arduratsua.

Orrez ganera, uztaila ta dagonilan batez be izaten diran jaiak, bidali, erberestatzte, ondartzta ta abar, eta onein ondorioz izaten diran xauketa, diru erazteak, geienak neurritz-kanpokoak kontuan izanik, gurasoentzat aldi arduratsu, buru-austekoa benetan.

Baiña gaur, diru-arazo, ekonomitaz, ez natortzue idazten, ez. Datorren ikasturtearen buruz, euskerazko ikasturtearen buruz zerbait idazteko asmuz, jezarri naz.

Milaka ume, gazte ta ez ain gazte ikastola, ikastetxeetara euskera ikasten jardun dirala jakitea, euskaldun batentzat beti pozgarria izaten da.

Baiña, tamala da baiña anbat beti izatea, ikastetxeetara doazan danak euskera ikasten jarduten dabe, euskera ikasi nai dabe? Gero euren bizitzan etxea, kalean, jolasketa, lantegi, euren arremanetan euskeraz itz egiteko ikasi nai dabe? Ala euren bizitzarako ogi-bidea izan dagien, ikasi nai dabe?

Jakiña da, euskera ikastea ez da bat be erreza, Urretxindorrek bere eztitsutariko bertso baten olan diño, “esaten dabe euskeraz oso gaitza dala ikasteko... Euskera oso maite dabenak, ori ez dauskue esango”.

Euskera oso maite dabenak, or dago kezka, ori da arazoa, euskeraganako gure izkuntzagan dogun maitasun-eza, ori da arazoa.

Ikasle ta irakasleak, euskera ikaskari, ikaskuntza, “asignatura” bezela artzen ba dabe, begiratzen ba dabe, gure izkuntzak, euskera, kaleratu ta edatzeko, arazo gogorak, oso gaitz, zail, gañieratu eziñekoak, izango dauz.

Ikasle ta irakasleak, ezeze euskotar guztiok, be, euskera jakin-gai, “asignatura” bat baiño askoz geiago, sakonagoa dala, jakin bear dabe. Euskotarrok, euskera bere izate, bere euskotar izatea osotzeko beraganatu bear dauan zerbait

garrantzitsua dala, jakin bear dau, ta jakite orren ondorioz, bere alde, euskera-
ren alde, eten gabeko lanean ziardun. Euskera oso maite dabenak...

Ikasle ta euren aita-amak, sendia, ikasturtea amaitukeran euren seme-alaba-
ren euskerazko ikaskaria, eskol-agiri egoki, "aprobado" uts-utsean poztuten ba
dauz eta izkuntzan, euskeraz, izan dabe, ikasleak izan daben, aurrekuntzagaitik,
ikasturte galdua izan da.

Aita-amak, umetxuen gurasoek, arazo onetan, euskera buruz, zeregin oso
garrantzitsua dabe. Euren seme-alabak alik geien euskera erabili dagien, eurak
dira iñor baiño geiago aduratu bear dabenak. Erabili esan dot, euskera erabili.
Naizta euskera ikasi, euskeraz itz egiten jakin, gero gure arremanetan geure
alkar-izketatan, toki guztiétan geure izkuntza erabilten ez ba dogu, ur-il antze-
ra euskera beti bardin izango da, iñoiz ez da berbiztuko.

Euskera oso maite dabenak... Euskera maite daben aita-amak, euren seme-
alabatxuei euskerazko ikasketatan lagundu naian, euskera ikasiko dabe. Euske-
ra osoz ez ba dabe, bai egunero erabilten diran esaldi batzuk. Egun on. Arratsal-
de on, orain ikastolara, gozaldü dozu? eta abar.

Umetxuak, ikasleek be, euren aita-amaren euskeraganako ardurea nabaritu-
rik, eurak be, ziur, euskera ikasteko arduratsüago izango dira.

Irakasle, andereñoak, euren ikasleen artean euskeraganako maitasuna sortu-
azoten, zeregin arduretsüenetarikoä da.

Tamalez, maitasun ori zelan lortu, nik ez dakit, baiña irakasleek ni baiño
jakitunagoak izanik, maitasun ori lortu al izateko bideak aurkituko dabez. Ziur.

Euskera, gure izkuntzak, danon laguntza bearrean dago. Ez daiogun ba gure
laguntza ukatu, euskeraren etsai, arerioak, ez gaitezän izan. Euskera oso maite
dabenak...

AUTODETERMINAZIOA

Gure aberri, Euzkadi, naigabetu onetan bere autodeterminazioa dala ta, azkenengo urteetan bai egunkari, aldizkari, telebista, komunitate bideetan, milaka eretxi, salaketa, eztabaida, izpide, entzun al izan dogu.

Eztabaida politikoa izanik, beste gure erriaren arazo batzuetan bezela, zentzunez erabilten dan gaia geienetan ez da izaten, eta zentzun-eza orren ondorioz burugabekeri larregi ta berebilak agertzen dira.

Autodeterminazio, burujabetza, azkatasun, laterri, nazio, batentzat eskubidea baiño zerbait iarrosgarri, sakonagoa da. Erriari dagokion, berana dauan eta nazio bat osotzen dauan almen zoragarria.

Laterri, nazioa, Kurdistan deitu, naiz Chechenia, Sajara, Kortzega edo Euzkadi deritxon, nazioak diran ezker, askatasuna eurakaz, erriakaz loturik da.

Gizaki, gizasemea, azke, askatasun osoz bizitzeko, bizi al izateko, jaioa ba da, laterri, nazioak askatasun bardiña eurakan dabe. Laterri, aberri, menperatu baten, bertako aberrikideak azke, askatasun osoz gozatzea eziñekoa deritxat.

Euzkadi, gure aberria, nazio bat ba da, ta gai onen buruz espñatarrak eurak be, gugaz dagoz, ba da euren konstituzioak olan adierazoten dausku, azke, autodeterminazio osoz bizi al izateko, Euzkadik eskubiderik, iñoren baimenik ez dau bear. Guzti au olan izanik autodeterminazio buruz, laterriaren autodeterminazio eskubidearen buruz eztabaidatzea burugabekeri bat deritxat.

Era bardiñean gure etsaiak esan leiskigue, euskotarrok euskera egiteko euren baimena bear dogula. Euskotarrok euskeraz itz egiteko iñoren baimenik ez dogu bear. Oztopo eragozpenak gure izkuntza erabilteko ugari izan, naizta euskera egitea, itz egitea, gure erriaren areriokandik sarritan debekatua izan, euskotarrok gure izkuntzagaz baliotzeko dogun almena ezin izan dausku eten, lapurtu.

Aurtxo bat, jaiio barriak azi ta ezitzeko eskubidea dabela esatea ez da bat be zuzena. Jaiio barriak azi ta ezitzeko iñoren baimenik ez dau bear, eskubiderik ez dau bear. Aurtxotxuak azi ta ezitzeko eskubideen ganetik dan almenagaz baliotuz ondo edo txarto, gaizki, egin bear orreik betetu al izango dauz. Naiz ta lurralde batzutan aurtxo, umetxuak, azi ta ezitzeko eragozpen ugariak eta gogorak izan, au da, gosea, txirotasuna, langabetasun, jan-edari-eza, irakasle ta ikastetxe eza, osakidetza eza, eskugain eza, eragozpen gaiñeratu eziñekoak izan, ume errukigarri oneik azi ta ezitzeko almena, euren almen ori, ez dabe galzten. Tamal da, zori-txarrez almen orrek eriotzatik ez dabez gaizkatzen.

Gure erria, aberria, Euzkadi, nazio bat izanik eusko-gizartea bere izakera, oitura, dantza, jolasketa, kultura, izkuntzagaz sortu zan une beratatik, eusko-gizartea, Euskadi, sortu zan une beratatik, askatasuna, autodeterminazioa, berberana dau, beragaz loturik dan banandu eziñeko almen zoragarria.

Euzkadik azke izateko iñoren eskubiderik ez dauala bear, argi agertzen da. Eskubide ori ez da jardukigarria. Laterri aundi indartsuago, altsuago batek, menperatzaile batek, indarkeri, gogorkeriz, almen orregaz baliatzea, azke izatea gozatzea euskotarrei debekatzen ba dautsa, gaizkile, jauntzar, eskubide guztiak menperatzen dauazan nazio zital bat da. Euskotarrei azkatasunean bizitea, bere buruaren jaun eta jabe izatea, zilegi eztea, ori beste arazo bat da.

Niretzat mireskoi dan Txomin Agirre idazle ospetsuaren esaldi sakona idazki au amaitzeko, olan diño.

“Menpekeri, indarkeria ez da eztabaidatzen. Arranoak, arranoa dala ta, beste zio gabe, indartsuago izanik, urretxindorrareri esango baleuskio.


Ixildu zaitetz, ixildu eizu zure txio txio nasgarri ori.

Urretxindorrak erantzun leukio.

Ixildu naitela ni! Nire txio txio au baztertu dagidala! Eziñekoa dot. Nire txio txio onek berez urteten daust. Nire txio txio barik ni ez naz urretxindorra. Kendu eistazu nire bizia, baiña ez nire abestia, ba da nire txio txio barik ni ez naz urretxindorra”.

Era bardiñean euskotarrok be gure menperatzailei esan geinkioe.

Kendu eiguzue gure bizia baiña gure azkatasun, gure izkuntza, ez, ba da Euskadi azkatasun barik, euskera barik, ez da Euzkadi.



Baserria gure izkuntzaren abaro ta babes-leku.